

## Mendira igo aurretik, begiratu geoEuskadi-ren bisoreari

27.Urr.2021



Alejandro Canterok, Euskadiko Mendietako Ingeniarien Eskolako dekanoa eta HAZI Fundazioko kideak, geoEuskadiri esker gure geografiako ortofotoak ikustei daitezke eta gainera zenbait informazio-geruza gehitu ahal zaizkiola azaldu du. Gure basoetako errealitatea (berak lantzen duen eremua) ezagutzeko, adibidez oso baliagarria dena. “Basoko espezieak ezagutzeko funtsezko tresna da. Zuhaitzak zenbat hazten diren, zein den baso-masa eta luzera, etab. Urtero, baso-mapa horri buruzko informazio guztia, hektareaz hektarea, geoEuskadi bisorean sartzen da, doakoa da eta edozein ordenagailu edo mugikor erabilita eskura daiteke”.

Informazio-geruzak amaitezina dira, eremu bat basogintzakoa, nekazaritzakoa edo hirikoa den jakitetik hasita. Basoa bada, zer espezie hazten diren bertan, eta, hortik aurrera, pertsona batek metodo tradizionalen bidez in situ neur dezakeen informazio guztia, satellite bidezko teledetekzioak ematen duenaz gain: zuhaitzen batez besteko diametroa, haien batez besteko altuera, zenbat hazten diren, zenbat metro kubiko zur dauden partzelan, edo haizeak edo suteak eraisteko zer arrisku dauden, LIDAR hegalkinek lortutako neurriei esker, obosfera hautematen baita. Basoaren eta basean dagoen sastrakaren erradiografia bat dugu.

Informazioa denontzat dago eskuragarri, lurren jabetza, nahiz pribatua, isilpean gordetzen baita. Dena bistara daiteke, baita edonork behar duen informazioa deskargatu ere. Informazio hori geruzatan banatzen da, basoak, ibaiak, akuiferoak, altuera desberdinak, desnibelak eta abar luzea. Alejandro Canteroren ustez, Euskadi da lurraldeari buruzko informazio gehien duen lurraldea. European LIDAR laserrezko hiru hegaldi oso dituen bakarra izan daiteke, baita lurralde osoa estaltzen duten ortofotoak ere, urtero 25 zentimetroko pixel-bereizmenarekin egiten direnak.

URA Uraren Euskal Agentziak hainbat informazio-geruza ditu prestatuta, uraren kutsadura-arriskuak edo uholde-arriskuak kuantifikatzeko. GeoEuskadi bisorea “Informazio kopuru izugarria du. Nahierako

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK

CURSOS  
DE VERANO  
SUMMER COURSES  
www.uik.eus

informazio moduko bat, udal- edo eskualde-planetarako, edo mendira joateko eta zer lur zapalduko duzun, non zauden eta bidean zer aurkituko duzun jakiteko.”

“Informazio hori aurkitzen duenak, dagoeneko ez dio erabiltzeari uzten”, zioen Alejandro Canterok, eta beharrezkotzat jotzen du geoEuskadiren existentzia zabaltzea. “Google maps-ekin, non zauden baino ez dakizu; geoEuskadi-ko informazioarekin, badakizu zer aurkituko duzun helmugara iristeko. Maldak, jaitsierak, gurutzatu beharreko ibaiak edo zein landaredi-mota gurutzatuko duzun”.

**Euskadin, normalean, lerro zuzena ez da laburrena izaten. Mendian, zureak egin dezake.**

Ematen den informazioa 3Dn ikus daiteke; beraz, aldeztatik badakizu ibilbidearen ezaugarriak zeintzuk izando diren. “Nahi duzun informazio-geruzekin ibilbide bat aurreikusi dezakezu, edo zure ibilbidea egin dezakezu ordenagailuaren saguari eraginez, fitxategi batean deskargatu eta mugikorrean eramane dezakezu. Denbora eta gogo pixka bat eskainiz, tresna izugarria da. Beste aplikazio batzuekin konektatuta dago, hala nola google maps-ekin”

Natura maite dutenentzat, adibidez, pago edo haritz basoak, espezieak antzinatasunaren eta ezaugarrien arabera, eta iristeko ibilbide motzenak aurki daitezke.

Izurriteek edo haizeek eragindako baso-kalteen jarraipena Europako Sentinel II satelitetik 5 egunean behin lortzen diren irudien bidez egiten da. Bestalde, hegazkinez lortutako ortofotoek 25 zentimetroko zehaztasuna duen mapa bat lortzen dute. Dron batekin, xehetasuna 1-2 cm-ra iristen da. **“Zuhaitzak zenbatu ordez, adarrak konta ditzakezu ia”.**

Destacado:

Foro sostenibilidad:

- [geoEuskadi](#)
- [mapak](#)